

BESTELAKO XEDAPENAK

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

3645

AGINDUA, 2022ko uztailaren 29koa, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, zeinaren bidez jendaurrean jartzen baita 2022ko martxoaren 8ko Aginduaren babesean aurkeztutako dirulaguntza-eskabideen ebazpena. Agindu haren bidez, deialdia egin zen Eusko Legebiltzarrean ordezkaturata dauden alderdi politikoekin lotura duten fundazio eta elkarteentzako 2022ko dirulaguntzetarako.

Ekainaren 30eko 119/2015 Dekretuak (2015eko uztailaren 9ko EHAA, 128. zk., eta haren huts-zuzenketa 2015eko irailaren 8ko EHAAn, 170. zk.) arautzen du Eusko Legebiltzarrean ordezkaturata dauden alderdi politikoekin lotura duten fundazio eta elkarteentzako dirulaguntzak emateko modua. Dekretu horretan ezarritakoari jarraikiz, Euskal Herriko Agintaritza Aldizkarian argitara emango da urteko deialdiaren ebazpena.

Horri jarraikiz, honako hau

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.— Jendaurrean jartzea Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuaren 2022ko martxoaren 8ko Aginduaren babesean aurkeztu diren erakunde eskatzaile onuradunak, lortu duten balorazioa, eta erakunde bakoitzari esleitutako dirulaguntzaren zenbatekoa (agindu haren bidez, deialdia egin zen Eusko Legebiltzarrean ordezkaturata dauden alderdi politikoekin lotura duten fundazio eta elkarteentzako 2022ko dirulaguntzetarako). Datu horiek guztiak eranskinean jasota daude.

2. artikulua.— Agindu hau Euskal Herriko Agintaritza Aldizkarian argitara dadin agintzea, jendeak horren berri izan dezan.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko uztailaren 29a.

Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburua,
BINGEN ZUPIRIA GOROSTIDI.

I. ERANSKINA

DIRUZ LAGUNDU DIREN ESKABIDEAK

Eskatzailea	Puntuak	Esleitutako dirulaguntza (euro)
Fundación para la Europa de los Ciudadanos	38,49	4.001,00
Fundación Ramón Rubial Fundazioa	35,47	22.997,00
Iratzar Fundazioa	58,34	91.186,00
Sabino Arana Fundazioa	73,67	161.816,00
Guztira:		280.000,00

II. ERANSKINA

ARTXIBATUTAKO ESKABIDEAK

Eskatzailea	Zergatia
Fundación Alkartasuna Fundazioa	Uko egin dio dirulaguntzari